



Sentitu, prestatu...eta ekin!

Hiru fase izango ditu Euskararen 10. Maratoialdiak: urriaren 22an hasi eta abenduaren 2an bukatuko da / 7-9

TXINTXARRI

Kultur aniztasunaren alde

Maitane Rebe lasarteoriatarrek antolatutako 'Munduko Dantzak' egitasmoan parte hartu dute herriko bi dantza taldek / 6

'Gailurrak argituz' ekintza aurkeztu du Gure Eskuk; Lasarte-Oriari Unanu mendia egokitu zaio / 3

Zubietako erraustegia gelditzeko eskatu dute 150 lagunek; martxa egin dute, Okendotik abiatuta / 4

Froilan Elespe herriko etxe berria ireki du Lasarte-Oriako PSE-EEK, eta ekitaldi batekin inauguratu / 5

Ostadar Boleibola saileko jubenilek Gipuzkoako txapelketa irabazi dute Aldapeta A taldearen aurka / 10

LOKEko gimnastek emaitza bikainak erdietsi dituzte Gipuzkoakoan, banaka zein taldeka / 11

Herriarteko kanporaketa galdu arren, lau eta erdikoan aurrera egin dute Intza KEko pilotariek / 12

2 MÓ 129€

PROGRESIBO

+
ukipen-lenteak doan hilabete baterako
+
premium azterketa bisuala

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiópticas.com   

Azkar eztabaidatu dituzte hil honetakoak

Lau puntuko gai ordena eztabaidatu dute, eta saioa amaitu aurretik ireki dute galdera eta erreguen tarte. Ordu erdi pasatxoko iraupena izan du. Amaitu aurretik, bertaratu den herritar batek hartu du hitza, eta proposamen bat luzatu dio udal korporazioari

Txintxarri

Miguel Angel Tolosa Avellinoren kargu hartzearekin ekin zioten maiatzeko ohiko udalbatzarrari. Tania Rodriguez Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiko zinegotziaren kargu uztearen ondotik hartu du lekukoa, eta bera arituko da, David Aresekin batera zinegotzi lanetan aurrerantzean. ELOP alderdiak bidalitako ohar batean azaldu du 2004. urteaz geroztik bizi dela Lasarte-Orian, eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatu zela, Bartzelonako Unibertsitatean. Gaur egun Politika eta Administrazio Zientzien ikasketak egiten ari da UNEDen. 2015ean hasi zen politikan parte hartzen eta Podemos Euskadiko finantza arduradun gisa, 2019ko autonomia eta udal kanpainetako hauteskunde administratzailea izan zen. Egun, Elkarrekin Podemoseko zinegotzi gisa, "herriaren alde lan egiteko eta 2023ko udal hauteskundeetarako hautagaitzarik onena bultzatzeko" helburuarekin ekin dio karguari.

Xabier Egea idazkariaren aurrean zin egin zuen zintzoki bateko dituela karguaren betebeharrak, eta Agustin Valdivia alkateak ongi etorria eman bitartean hartu zuen bere lekua.

2022ko martxoaren 10ean eta 16an, apirilaren 7an eta 29an ospatutako udalbatzarren akten onarpena egin zuten jarraian. Ez zen inolako hitzartzerik egin, eta zuzenean eutsi zioten hirugarren puntuari.

Puntu horretan agertu ziren lehenen desadostasunak. Arau Subsidiarioetako Hirigintza Arauen IV. Tituluko 4.5 A2 artikulua aldaketa puntuala egitea eztabaidatu zuten. PSE-EE, EAJ eta ELOP alderdiek aldaketaren alde bozkatu zuten eta EH Bilduk, berriz, aurka. Bozketaren ostean alderdi horrek



Urteko zazpigarren udalbatzarra egin du udal korporazioa hilaren 12an. TXEMA VALLES

eman zuen azalpena. Azpimarratu zuen aldaketa horrek Michelin II eta Teresategi eremuetan eraikiko dituzten merkatalgune handien beharrei erantzuten diela, eta bi proiektu horiekin desados dagoela alderdia: "Askotan adierazi dugu Lasarte-Oriak zituen lur industrial libreetan merkatalguneak eraikitzea udal gobernu honen akats estrategiko larria iruditzen zaigula herriaren garapen sozioekonomikoarentzat".

EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa landu zuten laugarren puntuan; abandonatutako bizikletak erretiratzeko proposamena luzatu zuten, eta honako bi eskaera egin: egoera txarrean edo abandonatuta dauden bizikletak erretiratzeko ahalbidetuko duen araudia sortzea, bai bizikletentzat prestatutako puntuetan, bai baimendu gabeko puntuetan eta erretiraturako bizikletekin zer egin aztertzea.

Aho batez onartu zuten gaia eta bozka azalpena egin zuen EH Bilduk. Adierazi zuen mozioaren alde egin zuela eskatzen diren puntuekin bat datorrelako, baina, iruditzen zaio, argumentazioak ez duela lotura zuzenik eskatzen

denarekin: "Mozioaren argumentazioan bizikletaren erailera sustatzeaz ari zarete, baina ez zaigu iruditzen eskaerak arazoari errotik eusten dienik. Gauza bat da bizikleten erailera sustatzea, eta bestea, abandonatutako bizikletak kentzea. Arazo estetiko bati soilik erantzuten dio mozioak".

Saioa amaitu aurretik hainbat gai jarri zituzten mahai gainean; galdera eta erreguen tarteetan. Horien artean udalak adineko egoitzarekin duen hitzarmenaz (EAJ-PNV), udaletxe berriko atarian dagoen "emozioen hormaz" (EAJ-PNV), udaleko langileen estabilizazio txostenaz (EAJ-PNV), Garaikoetxeako gimnasioko garbiketa maiztasunaz (EH Bildu), herritarrek eta herriko elkarteek erregistroan eskaerak egiteko dituzten zailtasunaz (EH Bildu) eta kontsumo bonuen kanpainaren balorazioa egiteaz (EH Bildu) hitz egin zuten, besteak beste. udal gobernuak kideek erantzun zieten banan bana.

Udalbatzarra zuzenean jarraitzea joandako herritar batek ere hartu zuen hitza; lokal komertzialei irtenbide bat emateko proposamen bat luzatu zion udal korporazioari.



Uistin kaleko lurpeko zabor edukiontzien artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

Hondakinei buruzko ordenantzari ekarpenak egiteko aukera

Dokumentua behin-betikoa bilakatu aurretik, hilaren 27ra arte izango dute herritarrek ekarpenak egiteko aukera

Txintxarri

Udal korporazioak behin-behinean onartu du Etxeko eta merkataritzako hondakinen ordenantza. Erabaki hori behin-betikoa izan aurretik, txostena jendaurrean jarri du, hamabost egunez, herritarren batek hala nahi badu, erreklamazio edo iradokizunen bat jar diezaion. Hori egiteko azken eguna

hilaren 27a izango da, ostirala. Dokumentua udalaren webgunean irakur daiteke, Herritarren Partaidetza atalean.

Europatik datozen "prebentzio, murrizketa, berrerrabilpen eta birziklatze xedeak betetzea" da ordenantza bat idatzi izanaren helburu nagusietako bat, udalak zehaztu duenez.

Lasarteoritarrek herriko komertzioa ezagutzeko kanpaina

Udaberri Festa betean dira Aterpeko bazkideak. Datozen egunetarako ere iragarri dituzte hainbat ekintza

Txintxarri

Aterpea Merkatarri eta Ostalarien elkarteak Udaberri Festa egiten ari da egunotan. Hilaren 28ra bitarte iraungo du egitasmoak, eta datozen egunetarako jardura ugariz gozatu ahalko dute herritarrek.

Maiatzaren 27an, egun osoan zehar, eskaintza bereziak izango dira Aterpeko bazkideen establezimientuetan. Hala nola, arratsaldean Buenetxea kafe tabernan patata minak eta garagardoa eskatzen duten herritarrek bost euro ordainduko dituzte. Arratsaldean, berriz, haurrei zuzendutako lau tailer egingo dira. Ormazabal loradendan landareak nola landatu ikasiko dute; Ola enmarcación dendan mural bat egingo dute haur eta

gaztetxoaren marrazkiekin; Nahio Arropa dendan poltsa bat apainduko dute eta Dulce Tentación dendan, berriz, paperezko panpinak egingo dituzte. Musikak ere izango du bere tarte; DJa ariko da Nahio dendan, eta rock kontzertua Arkupe taberna aurrean.

Maiatzaren 28an, berriz, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Txu-txu tren batek zeharkatuko ditu herriko kaleak. Okendo plazan izango du geltokia.

2.000 euroko balioa duten erosketa bonuen zozka ere martxan dago. Kanpainak iraun bitartean elkarteko hainbat komertzioetan erosketak egin eta parte hartze txartela betetzen duten herritarrek eskuratu ahalko dute saria.

'Gailurrak argituz' ekintza aurkeztu dute

Autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko, uztailaren 2an Higer lurmuturretik Creusera arteko Pirinioetako 300 mendi tontor argiztatzera deitu ditu herritarrek Gure Eskuk. Lasarte-Oriari Igantzin (Nafarroa) dagoen Unanu mendia egokitu zaio

Txintxarri

Nazioarteko komunitatearen arreta lortzeko xedez, Atlantikotik Mediterraneora helduko den aldarrikapen ekintza aurrera eramango dute uztaileko lehen larunbatean, Euskal Herria eta Katalunia batuz. "Mezu argi bat bidaliko dugu Pirinioetatik mundura: katalan eta euskal herritarrok libre eta burujabe izan nahi dugu, gure etorkizuna erabaki nahi dugu eta herritarren borondatea entzun eta errespetu dadin eskatzen dugu", azaldu zuen aurkezle lanetan aritu zen Mainer Galardi kazetariak.

"Herri gogoa berpiztea ezinbestekoa da" eta hura hauspotzeko gauzatuko dute jarduera Kataluniako Asmblea Nazionalak (ANC), Kataluniak (FECC) eta Gure Eskuk, Omnium Cultural eta Errepublikaren Artistak-en laguntzarekin; eragile sozialek elkarrekin antolatutako lehen mobilizazio herritarra da.

Guztira 300 tontor argiztatuko dituzte. Helburua, ordea, "gailur handiagoetara heltzea da", eta Pirinioetako ekimena aitzaki hartuta, "erabakitzeo eskubidearen aldeko sarea indartzea, dinamikara jende berria batzea". Bide horretan urratsak egiten hasteko, ekainaren 11n girotzea egingo



Aurkezpenaren ondoren, talde argazkia egin zuten Askatasuna parkean. TXINTXARRI

dute Lasarte-Oriari. Besteak beste, uztailaren 2ko *Gailurrak argituz* ekintzaren berri eman eta Sorgin Dantza handi bat burutuko dute.

Unanu eta Okendo lotu

Euskal herritarrek 100 gailurretik gora argiztatuko dituzte. Herri bakoitzari gailur bat dagokio; Lasarte-Oriari, Unanu (651m). Ez du aparteko zailtasunik, eta jende gehienarentzat irisgarria dela adierazi zuten aurkezpenean. Gainera heltzeko ordubete-ordubete eta erdi beharko dutela aurreikusten dute, norberaren sasoiaren arabera.

Lasarte-Oriako Gure Eskuk autobusa antolatuko du Igantzira. Norberak eramandakoa afaldu, eta 23:00etan *Txoria txori*

abestuko dute. Sanpedroak izango dira egun horietan eta joan ezin dutenentzat ekintza sinbolikoa ere egin nahi dute herrian. Okendon pantaila jartzeko aukera aipatu zuten, tontorrean daudenek eta plazan daudenek elkarrekin abes dezaten. Argiztatzeko farol bereziak, linternak, frontalak eta antzekoak erabiltzea aholkatu zuten. Ekintza amaituta bueltatuko dira, jaitsiera, beraz, ilunpean egingo dutela ohartarazi dute.

Ekintzan parte hartzeko nahitaez izena eman behar da Gure Esku-ren webgunean eta 10 euro ordaindu, kopuruaren erdia antolaketa gastuei aurre egiteko da, eta beste erdia, erreskate aseguruak.



NEURE KABUZ
GORKA LASA

Kanpoan eta barruan

Aurreko batean, etxekoneko Fermin hil zen. 74 urte zituela minbiziak jota zendu zen gure baserri ondokoa. Mutil zaharra zen, bertan jaio, hazi eta hezi, baina bertan hil ez dena, Donostian baizik, "kapitalen", berak zioen bezala. Bere bizimodua baserriari lotua eman zuen, behiak gobernatzeko, arditan, gaztagintzan, baserriko jirak egiten alegia, eta inguruko herrietako azokara jaisten ez bazen, ez zuen kanporako joerarik izan. Hori bai, soldaduska Saharan egokitu zitzaion, Aaiunen, belaze berdeetatik basamortu arrera, hamaika kontu izaten zituen gaia ateraz gero.

Fermin ez zen eguzkitik eguzkita lan egiten zuen baserriari horietakoa; patxadaz hartzen zituen gauzak, ondo lo eginda jaiki, gosalduta, eta dotore prestatu eta gero hasten zen lanean. Iristen zen arte, lehertu gabe; "Bihar ere izango da zeregina". Langile zuria zen, esku finekoa, eta ezaugarri honek liskar eta ikusiezin bat baino gehiago sortu zizkion.

Hileta egunean, bi apaizek eman zioten azken agurra elizkizunean. Lepo beteta zegoen bitan banatzen den eliza, emakumeak alde batera eta gizonak bestera, nahiz eta jainkoaren hitzak beste batzuk izan. Bi apaizek Ferminen izana goraiatu besterik ez zuten egin, zein gizon umil eta ona zen, langile eta eskuzabal, adiskide eta prestu. Zeruko atea irekita zuela eta Jainkoak esker onez onartuko zuela bere baitan.

Elizkizuna amaitzean, eliza atarira irten, eta ahaide gertukoenek, hilkutxa bizkarrean hartuta, gupidagabeko aldapa baten gora igo zuten kanposanturaino han lur emateko. Hura bai kalbario bidea! Aldapa eta beroa! Geldialdiak eginez igo zuten gorpua, astiro eta nekez.

Elizatarian geratu ginen askorekin egoteko parada izan nuen, horrelakoetan bakarrik elkartzen baikara aspaldi honetan; eliza barruan entzun ez nituenak entzun nituen kanpoan: batek zera esan zidan: "Berak merezi baino jende gehiago etorri dek hiletara..." Beste batek, berriz: "Hori dotore joango huan orain ere kajan!".

Taldetxotik taldetxora ibili nintzen jendea agurtzen, eta beste bati honako hau entzun nion: "Ez dek lanean lehertu!" Eta ondokoak erantzun: "Hilda gero ere lanak ematen dizkik!". Kanposatura begira.

Argi dago, elizkizuna eman zuten bi apaizek ez zutela oso ondo ezagutzen gure etxekonekoa, edo bestela, oso desberdin jokatzen zuela Ferminek eliza barruan eta kanpoan. Zalantza sortu zait.



Zozketa! Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

BIZIPOZA elkartearen eskutik **MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT CD+DVD** sorta bikoitza zozkatuko dugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena maiatzaren 29a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean, eta 646 82 44 66 (whatsapp)



TTAKUNENEAREN BATZARRA

Eguna: 2022ko maiatzaren 25ean, asteazkena.
Ordua: 19:00etan.
Lekua: Ttakunenean.

GAI ZERRENDIA

1. 2021 urtearen berri eta 2022ko asmoak.
2. Ttakuneneako araudia.
3. Eskakerak eta galderak.

Ttakun Kultur Elkartea

Lasarte-Oriari, 2022ko maiatzaren 19an



Zubietako erraustegira joan ziren martxalariak Okendo plazatik abiatu eta Kale Nagusia zeharkatu zuten. TXINTXARRI

Zubietako erraustegia gelditzeko eskatu dute

Errausketaren Aurkako Mugimenduak deituta, 150 bat lagunek bat egin dute hilaren 14an Zubietako erraustegira egindako oinezko martxan. Abiatu aurretik, Usurbilgo Elektro Papo elektrotzarangak ordu erdiko saioa egin du Okendo plazan

Txintxarri

Deialdia 11:00etarako eginda zuten eta jendea biltzen joan zen plazan. Erdian prest zuten Elektro Papo elektrotzarangako kideek beraien saioa egiteko. Bospasei abestiren ondoren, pankarta hartu eta abiatu ziren herritarrak. Kale Nagusian barrena joan ziren erraustegira bidean. Bidean klima aldaketa eta errausketaren aurkako oihuak egin zituzten, eta biak lotzen zituzten afixak zeramatzen zenbaitek.

Aurtengo martxaren deialdian *Donostiako Erraustegiaz... zer ez digute esaten?* galderari erantzun nahi izan diote. Hondakinen arazoa ez konpontzeaz gain, "ingurumena kutsatu, bizidunon osasuna kaltetu eta klima aldaketa larriagotzen duten isuriak" airera botatzen ditu". Salatu zuten Zubietatik kanpora barreiatzen ari dira hondakinen errakuntzak eragindako eskoriak eta beste erraus toxikoak.

Halaber, deitoratu zuten Gipuzkoako eta EAEko agintariak zenbait "gauza ilun" ezkututzen ari direla herritarrei: labeetan erretako hondakin tona bakoitzeko isurtzen duten CO2 kopurua zein den, bertan sartutako guztiaren ia laurdena eskoria bezala ateratzen dutela eta Añorga, Lemoa eta Arriagorriagako porlan fabriketara eramaten dutela; tximinietako filtroetan biltzen diren erraus toxiko arriskutsuak, erretakoaren %3, berriz, Gaztelara eramaten dutela; bertan erretzen den gehiena, %65, birziklagarria dela; Gipuzkoako hiri hondakinen %87 birziklagarria izan arren, %55 bakarrik birziklatu zela; Gipuzkoa oso urrun dagoela

**150 BAT LAGUNEK
BAT EGIN DUTE
AZPIEGITURARA
EGINDAKO MARTXAN;
HERRITIK ABIATU DA**

2018ko Europako Hondakinen Zuzentarauak 2020rako zehatutako hondakinak %10 murrizteko helburutik, eta, 2021ean, errefusa kopurua hazi egin dela, Sasieta mankomunitatean salbu; eta Gipuzkoako hainbat herritan bereizita jasotzen den hondakin organikoa alferrrik galtzen dutela, organiko hondarra ez baitute konpostatzen, Nafarroako Artaxoako planta batera bidaltzen dute. "Inbertsioak, benetako gaikako bilketa sistema eraginkorrak ezartzeko baliatu behar dira eta ez birziklagarriak diren baliadun hondakinak erretzeko labetarren planta eraikitzen".

Goiz osoan zehar etengabeak izan ziren erraustegia gelditzeko aldarriak. Errausketaren Aurkako Mugimenduak antolatu zuten martxa, hainbat eragileren babesarekin: Eguzki, Greenpeace, Ekologistak Martxan eta Donostia Bizirik. Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak ere bat egin zuten protesta ekintzarekin.



Alboka abesbatzako kideek emanaldi bikaina egin zuten Sorian. ALBOKA ABESBATZA

Lasarte-Oriatik kanpoko kontzertuei berrekin die Albokak

Soriako X. Ahots Jaialdian parte hartu du abesbatzak, eta erreperitorio anitza eskaini: besteak beste, abesti herrikoiak

Txintxarri

Bi urte eta gero, Alboka abesbatza kontzertuak egiten hasi da herritik kanpo. Hilaren 14an Soriara (Gaztela Leon) joan zen, bertako abesbatzak antolatutako X. Ahots Jaialdian abestera. "Gogoz" egin zuten bidaia. San Esteban de Gormaiz-eko koruarekin partekatu zuten emanaldia; Alboka igo zen oholtzara lehenengo. Egitarau anitza eskaini zuten, hala nola, abesti herrikoiak, erlijiosoak nahiz pelikulen soinu bandetako doinuak. Kideen ahotsak beste instrumentu batzuekin uztartu zituzten: Oscar Gallardo piano joleak eta Carolina Muñoz zein Unai de Andres perkusionistek kontzertuan parte hartu zuten.

Saio hori aurrera eramane zuten bi abesbatzak Soriakoarekin batu, eta bi abesti kantatu zituzten jaialdiari amaiera emateko: *Tourdion* eta *Signore delle cime*.

Horren ostean, partaideei oroigarri eta lore sortak eman zizkieten; bi koru gonbidatuek Numantziako zalditxoan oinarritutako eskultura bana jaso zuten.

Harremanak sendotzen

Kontzertua bukatu eta gero, hiru taldeek mokadutxo bat jan eta harremanak sendotu zituzten. Albokak eta Soriako abesbatzak emanaldi trukea egiten hasi dira: Gaztela Leongo hiri horretan egin dute lehena, eta gure herrian izango da bigarrena; zehazteke dute data.

Lasarte-Oriatik kanpoko kontzertuak berrartzeaz gain, turismoa egin zuten Albokak, eta Soriako hiria ezagutu. Kideak indarberrituta itzuli dira herrira, eta San Pedro Jaien aurrekari modura egingo duten emanaldia prestatzen jarraituko dute datozen asteetan.

Aixita Sariketa irabazi du

Ane Labaka herritarrak Aixita Sariketa irabazi zuen Iruztunen (Nafarroa), hilaren 14an. Elkarrizketa eman dio *Bertsokak.eus* atariari, eta, kontatu duenez, saio osoan zehar "gustura" aritu zen bertsoan, "giro bero eta goxoan". Horrez gain, Bertsolari Txapelketa Nagusia prestatzen hasia dela adierazi du, eta azpimarratu, "heldutasun puntu batekin" iritsi zaiola parte hartzeko aukera. 30 urte beteko ditu abuztuaren 8an.



BERTSOAK.EUS

Sozialistek herriko etxe berria inauguratu dute

Ganbo kaletik Kalbario bidera lekualdatu du haren egoitza Lasarte-Oriako PSE-EEK. Itxura erabat berria izanagatik, izena ez du aldatu: Froilan Elespe herriko etxeak atek zabaldu ditu, alderdiko zenbait karguk eta jarraitzailek babestuta

Txintxarri

"Ongietorriak Herriko Etxe honetara", hitz horiekin agurtu zituen Agustin Valdivia alkateak Lasarte-Oriako PSE-EEren egoitza berriaren inauguraziora bertaratu ziren alderdikideak eta herritarrak, hilaren 14an. Aurrez aurre izan zituen, besteak beste, Jesus Zaballos alkate ohia, Iñaki Mugica, Espainiako gobernuak EAEn duen ordezkari Denis Itxaso, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatu Rafaela Romero, Idoia Mendia bigarren lehendakariordea edota Kultura, Gazteria eta Kirol foru diputatu Harkaitz Millan.

Azaldu zuenez, luzaroko nahia izan da "garai berrietara egokitutako" egoitza bat edukitzea, "herritar guztiei zabalik" dagoena. Beraien ideiak hedatzeko lekua izatea nahi dute, "garapenaren, berdintasunaren, justiziaren eta demokrazioaren gainekoak", baita babesgabeak defendatu eta askotariko pertsonak hartuko dituen ere. "Askatasun gune bat, finean". Era berean, herriaren alde lanean jarraitzeko gunea ere izango da.

Froilan Elesperi aitortza

"Harro diot: gaur inauguratzen dugu Froilan Elespe herriko etxea". Egoitza berri hau bere

legatuaren parte dela nabarmendu du Valdiviak. "Bizitza kendu zizuten herri honetako jendearen alde borrokatzeagatik, babes gehien behar zutenen eskubideen alde borrokatzeagatik", eta senideei gogoratu die hura bueltatzerik ez badute ere, bere memoriak ez dituela utziko. "Pablo Iglesiasek esan bezala: 'Sozialistak ez dira hiltzen, erein egiten dira'".

Alkatearen ondoren, Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusi Jose Ignacio Asensio, PSE-EEko idazkari nagusi Eneko Andueza eta PSOeko antolaketa idazkari Santos Cedrian alderdiko ordezkarien txanda izan zen.



PSE-EEren gaur egungo nahiz garai bateko zenbait ordezkari izan ziren ekitaldian. TXINTXARRI



Ekitaldi politikoa amaitzean, egoitzako tabernak atek ireki zituen. TXINTXARRI

Sanpedroetan Okendo eta Isla plazetan joko duten musika taldeak ezagutarazi ditu udalak

Kinada, El Drogas, Zea Mays, Duo Imperial, Gauargi eta Ibai Berriak taldeak ariko dira, besteak beste, oholztan

Txintxarri

Hilabete pasatxo baino ez da geratzen herriko festetarako eta Lasarte-Oriako Udalak ospakizun egun horietan kontzertuak eskainiko dituzten musika taldeen berri eman du. Aurtengoak, urtero legez, Okendo eta Isla plazetan izango dira, baina ez da bakar bat ere izango Jaizkibelekoan, Sasoetako etxabeen eraiste lanak direla eta. Gazteria eta Festak arloko zinegotzi Txus Alonsok adierazi du aurtengo emanaldi guztiak herritarrek parte hartze prozesuan proposatutako 230 iradokizunetatik aukeratuak izan direla.

Kinada talde lasarteoriatarra izango da Okendoko oholztara igoko den lehena; ekainaren 29an joko du. Uztailaren lehen, berriz, Motxila 21, El Drogas eta Zea Mays taldeen txanda



Udal ordezkariak aurkezpenean. TXINTXARRI

izango da, eta 2an, Modus Operandiren eta Skakeitanen doinuen erritmora dantzatzeko dute herritarrek.

Isla plazan, Duo Imperial arituko da ekainaren 28an. San Pedro Egunean, ekainak 29,

Gaurargi erromeriak girotuko du gaua. Ekainaren 30ean Azabacheren emanaldia izango da, eta ostiralean, uztailak 1, berriz, La década prodigiosa arituko da oholtzara gainean. Jaiei amaiera emateko, uztailaren 2an talde lasarteoriatar batek girotuko du gaua, Ibai Berriak.

Herriko bi eremu horietan egingo diren kontzertuen aurrekontua 78.000 eurokoa da.

Aurtengo berrikuntza

Aurtengo jaietan gazte eta nerabeei zuzendutako espazio bat bideratzea erabaki du udalak. Horrela, Oriarte institutuko patioan estalki bat jarriko du, eta bertan arituko dira Gaztelekuan entseatzen duten musika talde lasarteoriatarrak. Horrez gain, jakinarazi du. DJak ere arituko direla.

Datozen asteetan emango du San Pedro Jaietako egitarau osoaren berri.

Kukuka eskolak II. Bideo Txapelketa antolatu du

Lanek gehienez hiru minutuko iraupena izan beharko dute, eta horiek bidaltzeko azken eguna hilaren 31 izango da

Txintxarri

Iazko esperientzia arrakastatsua errepikatze aldera, Kukuka eskolak bideo txapelketa egingo du, bigarren bezala. Lasarteoriatar guztiak animatu dituzte parte hartzera: "Berdin da adina, esperientzia, bakarrik grabatu edo lagunekin, mozorrotuta edo gabe, abesten, dantzatzen... Aprobetxatu aukera, eta izan artista! Hiru sari dituzue zain", nabarmendu dute arduradunek.

Ikus-entzunezkoek ezingo dute hiru minutu baino luzeagoak izan, eta egileek formatu horizontalean grabatu beharko dituzte. Hilaren 31a baino lehen bidali beharko dute sortutako materiala ekitaldiak@kukuka.eus helbide elektronikora.

Txapelketako lehen saria irabazten duenak, Avenida tabernan bapo bazkaltzeko lau menu poltsikoratzeaz gain, 50



Kukuka eskolako kideak. TXINTXARRI

euroko deskontua izango du 2022-2023 ikasturtean, Kukuka eskolan; bigarren bideo onenaren egileak ere 50 euroko deskontua izango du datorren kurtsorako izen ematea egiterakoan; eta hirugarrenak, aldiz, 25 eurokoa.



2019. urtean parte hartu zuen, lehenengoz, Erasmus + egitasmoan Maitane Rebe lasarteoriatarrak. M. R



Iragan larunbatean 'Munduko Dantzak' egitasmoa antolatu zuen Abarkak Oiartzunen. MAITANE REBE

Kultur aniztasunaren erakusle, komunitate egile

'Munduko Dantzak' egitasmoan parte hartu dute Lasarte-Oriako bi dantza taldek; Kukukak eta Semblante Andaluzek. Mundu osoko dantzen agertoki izan da aipatu herria, eta jarduera hori antolatzea herritar baten ardura izan da: Maitane Rebe Igartuarena

Txintxarri

Dantza "herrien benetako adierazpena" dela iritzita, munduko toki ugarietako dantza taldeak elkartuko zituen Abarka GKEak iragan larunbatean, hilaren 14an Oiartzungo Done Eztebe plazan. Munduko dantzen erakusle bihurtu zuten aipatu herriko plaza. Zortzi dantza taldek parte hartu zuten egitasmoan, horien artean Lasarte-Oriako bik: Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako euskal dantza sorkuntzako bi taldek eta Semblante Andaluzeko lau dantzari gaztek. Horrelako jarduera bat egin izana, ordea, ezinezko zatekeen aurretiazko antolaketa lanik gabe; eta zeregin horietan aritu da, besteak beste, herritar bat: Maitane Rebe Igartua.

"Oso jarduera polita" izan zela kontatu dio TXINTXARRI-ri, eta bertan bizitako berri eman.

Egitasmoaren lehen edizioa izanik, "urduitasuna eta presioa" nabaritu zituen, baina apurka baretu zitzaizkion: "Ez genekien jendeak nola erantzun zuten eta oso harrera ona izan du. Parte hartzaileak oso hunkituta zeuden eta ikusleak ere oso gustura". Ikusleak, normalean, agertoki pareko eserleketan egon ohi dira emanaldietan, baina une batez, ikusle izateari utzi, eta dantzari ere bilakatu ziren Oiartzungo plazara gerturatutako hainbat. Kamerungo erritmo biziekin trebetasun handia erakutsi zuten.

Prestaketa lanak ez dira uste bezain errazak izan, ordea. Azken aldian pandemia bareago dagoen arren, COVID-19ak eragindako osasun egoerak horretan eragin zuzena izan duela uste du herritarrek: "Hainbat dantza taldek ezekoa eman ziguten, oraindik

pandemia ostean martxa hartzen ari baitira".

la hiru urte boluntario lanetan

2019az geroztik ari da Rebe boluntario gisa lanean Abarkan. Unibertsitatean izan zuten erakundearen berri, Ekonomia Sozial eta Solidarioa graduondoko ikasketak egiten ari zela, erakundea aurkeztera joan baitziren ikastetxera. Saio hartan jakin zuten Kamerunera bidaiari solidario bat egitera joateko aukera izan zezakela, eta interesgarria iruditu zitzaionez, erakunde ordezkariekin harremanetan jartzea erabaki zuten: "Betidanik izan dut boluntario lana egiteko nahia, baina ez naiz sekula fio izan GKEekin. Horien eta enpresen arteko marra oso lausoa da, eta horrek mesfidantza sortu izan dit". Abarkak beste filosofia bat du, GKE txiki eta familia girokoa

da. Ez didate zer nola egin behar dudana zehazten; egiten dudana niganik ateratzen da". Egun, askotariko adin, nazionalitate eta errealitateetako gazte talde batek osatzen du Abarka eta horien guztien artean, nazioarteko proiektuetan elkarrekin ari dira lanean, gizarte inklusibo baten alde.

2023ko udan bidaiatuko dute Kamerunera eta bidaiari hori prestatzen ari dira dagoeneko. Hainbat hezkuntza proiektu garatu nahi dituzte, baina ez hori bakarrik; sexualitatea lantzeko ikastaroak ere eman nahi dituzte.

Data hori iritsi bitartean, ordea, beste zenbait egitekotan ari da lasarteoriatarra. *Erasmus +* egitasmoa koordinatzailea da, eta erakundeak Euskal Herrian antolatzen dituen jarduerak ere

2019AZ GEROZTIK ARI DA BOLUNTARIO LANETAN ABARKAN MAITANE REBE HERRITARRA

bere gain daude. Horien arten, aurreratu ditu batzuk. Ekainaren 11n Bilbon egingo den *Munduko Arrozak* egitasmoan parte hartuko dutela iragarri du, eta, urrian, egitasmo bera antolatzeko ardura hartu du Abarkak; Oiartzunen egingo dute.

Horrez gain, *Historias de tu vida* izeneko ekintza bat ere antolatuko dute. Atzerritik Euskal Herrira etorritako pertsonen askotariko errealitate ezagutarazi asmoz.

Oinetakoa eta eskertza adierazpena Seguruenik ez zaizu arrotza egin erakundearen izena, irakurle, baina, kamerundarrez eskertzeko erabiltzen dutela esaten badizut? Hortxe, Euskal Herria eta Afrika erdi-mendebaldeko estatuaren arteko beste lotura bat.

Erakundearen berri izan nahi duen lasarteoriatarrik bada, <https://abarka.org/> helbidea bisitatzeaz gain, honako bide hauen bitartez jar daiteke Abarkarekin harremanetan: 688 68 02 33 telefono zenbakira deituta edo WhatsAppa bidalita, edota info@ongabarka.org helbidera mezu bat idatzita.



Zortzikotea hamabiko talde bilakatu zen bat-batean: Valdivia, Antxordoki, Egizabal eta Ormazabal batu ziren argazkira. TXINTXARRI

Bihotz, burmuin eta mingain

Sei urte eta gero, euskara plazara eramango du berriro Lasarte-Oriak, izen eta formatu berriak dituen egitasmo baten bidez: Euskararen 10. Maratoiak hiru fase izango ditu, urriaren 22an hasi eta abenduaren 2ra arte. Ohi bezala, zortzikoteak dinamizatuko du

Iñigo Gonzalez Sarobe

Zangoekin egiten diren maratoiak 42,195 kilometro dituzte luze. Lasarte-Oriak aurtengo urritik abendura bihotz, burmuin eta mihiarekin egingo duenak 42 egun iraungo ditu; urriaren 22tik abenduaren 2ra. Euskararen 10. Maratoiak izango da, eta hiru fase izango ditu, egitasmoaren leloarekin bat datozenak: *Sentitu, prestatu...eta ekin!*

Bea Egizabalek aurkeztu zuen ekitaldia, ohi bezala, umoretik. Aldarrikatu zuen Euskararen Maratoia ez ezik, gerora Euskaraldia bilakatu zena -2016ko *Irten armairutik!* ariketa soziolinguistikotik abiatu zen; orduan jaio ziren Ahobizi eta Belarriprest rola - ere gure herrian sortua dela, eta logoak "askoz politagoak" direla: "Eusko Jaurilaritzak diseinatutakoek igogailuetako irudiak ematen


dute, adibidez, belarriek". Udaleko Euskara batzordeko lehendakari Jon Antxordoki gonbidatu zuen oholtzara, eta honek ere umoretik heldu zion gaiari: "Gauza bat egin genuen gaizki duela sei urte, ez genion patente jarri ariketari; nork daki, agian kiroldegi berria eraikitzeke adina diru lortuko genukeen".

"Gure hizkuntza, herriko plazara"

Euskararen Maratoiaren ideologoen txanda izan zen gero: Agus Mujika eta Iñaki Arrutik gogoratu zuten egitasmoa nondik datorren, eta 1986ko Lasarte-Oriaren argazkia egin. "Maratoiaren lehenengo zehazpena" ere erakutsi zuten, Mujikak 1986an eskuz egindako eskema bat. Azaldu zuen 1985ean kazetari batek Londresen egindako ariketatik otu zitzaiola "gure hizkuntza herriko plazara"

eramateko ideia, eta Arrutiri deitu ziola bilera bat egiteko. Azken horrek, geroxeago, 1986tik 2016ra arteko maratoi guztiak erreparatu zituen. "Erronka, apustu formatua eman genion hasieran; aldiz aldi gaintitzen joan ginen hori, eta bosgarrenean etorri zen paradigma aldaketa, beste parametro batzuk, eguneroko plazerak ez baitauka erronkatik ezer".

Esan bezala, Maratoiak hiru fase izango ditu. Ttakun Kultur Elkarteko lehendakari Mari Karmen Ormazabalek azaldu zuen dinamika nolakoa izango den, zer egingo den eta noiz: urriaren 22an eta 23an, "betiko Maratoia" edo *Sentitu*, motibazioa pizteko; urriaren 24tik azaroaren 17ra, *Prestatu* fasea izango da, hurrengo egunean hasiko den erronkarako entrenatzeko; eta, azkenik, ...eta



Euskararen Maratoiaren sorreraz jardun ziren Agus Mujika eta Iñaki Arruti. TXINTXARRI



Maitane Eizmendiren (ezkerrean) amona Pepi zortzikoteko kide izan zen 1992an. TXINTXARRI



Hainbat herritar animatu ziren kamiseta berrieekin desfilatzera. TXINTXARRI

ekin!, Euskaraldiari "martxa ongi hartzeko". Abenduaren 2an bukatuko da erronka.

Eta nork dinamizatuko du hori guztia? Zortzikoteak, ohi bezala. Aurkezpenean ezagutarazi zuten Maratoiaren aurpegiak nortzuk izango diren. Hiruk esperientzia dute: Joxe Mari Agirretxe (aldi guztietan parte hartu du), Rebeka Garzes (2000tik ez du hutsik egin) eta Enara Ieregi (hirugarren aldiz ariko da). Beste bostak, aldiz, berriak dira: Maitane Eizmendi -bere amona Pepi

Arsuaga igo zen oholtzara une batean; zortzikoteko kide izan zen 1992an-, Jagoba Mendizabal, Viky Castro, Coro Dominguez eta Iñaki Etxegia *Patxo*.

Aurkeztu beharreko guztia aurkeztuta (webgunea eta kamiseta berriak barne), talde argazki erraldoia atera eta kultur etxeko kafetegira igo ziren partaide eta ikus-entzuleak, mokadu bat jatera, indarrak hartzeko. Ezetz dirudi, baina emozioak dantzan jartzeak ere nekutzen du. Hasi dira urrirako berotzen.



TXINTXARRI aldizkaria Euskararen 10. Maratoiaren jarraipen berezia egiten ari da, eta edukiak kanal berezi batean biltzen (eskaneatu QR kodea)



Sentitu, prestatu...eta ekin!

Sei urte eta gero, bueltan da Lasarte-Oriako euskararen festa handia, Euskararen Maratoia. Hamargarren aldiz ospatuko dugu aurten, formatu berri batekin. Izena eta guzti aldatu du: Euskararen Maratoialdia da orain, Maratoia bera eta Euskaraldia uztartuko dituelako, horren antolatzaile diren Lasarte-Oriako Udala eta Ttakun Kultur Elkarteak azaldu dutenez. Aurtengo aldiak hiru fase izango ditu, eta, ohi bezala, zortzikoteko kideek dinamizatuko dute. Ezagut itzazu!

Txintxarri

Aurten inoiz baino gogotsuago ospatuko dugu Euskararen 10. Maratoialdia. Bai, Maratoialdia, Maratoia eta Euskaraldia, biak elkarrekin uztartu nahi izan baititugu.

Aurreko edizioan Lasarte-Oriako euskal hiztunak ahalduzko ariketa proposatu genuen, hau da, "Armairutik irtetera" animatu genituen lasarteoriatarrek, euskaldunok, konplexurik gabe, gure buruaz eta hizkuntzaz harro sentitzeko. Horretarako sortu genituen Ahobizi eta Belarriprest figurak,

eta rol horien bidez, Euskal Herri osoko beste euskaldun askok beren ahalduzkoan aurrerapausoak eman zituzten 2018ko eta 2020ko Euskaraldietan.

Ahalduntzeko urratsak eginak baditugu ere, oraindik bide luzea dugu gaztelania lehenestera garamatzaten ohitura, lotsa, aurreiritzi eta abarrak alde batera uzteko. Horregatik, aurten, lasarteoriatarren ahalduzko prozesuan bidelagun izaten jarraitu nahi dugu, eta horretarako, 42 eguneko Maratoialdia antolatu dugu. Hiru fase izango ditu. Nola izena

duzen? Egitasmoaren leloak berak ematen ditu hainbat pista: *Sentitu, prestatu...eta ekin!*

Sentitu! Euskaraz gehiago hitz egiteko motibazio kolpea jasoko dugu Maratoian, urriaren 22an eta 23an.

Prestatu! Urriaren 24tik azaroaren 17ra, hizkuntza asertibitatean entrenatuko gara kolektiboki, hizkuntza ohiturak aldatu eta konplexuak alde batera uzteko.

... eta ekin! Azaroaren 18tik abenduaren 2ra, Euskal Herri osoan Euskaraldia ospatuko da, eta Lasarte-Oriaren ere bai.

Behin motibazioa landuta eta gure burua prestatuta, euskaraz hitz egiteari ekiteko garaia izango da!

Antolatzaileak, gogotsu lanean

Lasarte-Oriako Udala eta Ttakun Kultur Elkarteak ari dira euskararen jai handi hori antolatzen. Udaleko Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik adierazi du Euskararen Maratoia "tradizio handiko jai" dela lasarteoriatarrentzat, eta, azpimarratu, bertan egindako lanak Euskal Herri osora zabaldu zirela Euskaraldiaren bidez:

"Horrek erreferentziagune bihurtu du Lasarte-Oria euskalgintzaren esparruan".

"Aurtengoa hamargarren aldia da eta asko dugu ospatzeko. Orain arteko maratoietan milaka momentu gogoangarri sortu dira, eta aurtengoan ere, beste horrenbeste sortzeko ilusioz gabiltza lanean", adierazi du Ttakun Kultur Elkarteko lehendakari Mari Karmen Ormazabalek.

Ohi bezala, TXINTXARRI aldizkariak ere euskararen festa handi horren jarraipen berezia egingo du, paperean zein sarean.



sentitu prestatu... eta ekin!



Iñaki Etxegia Loiarde 'Patxo'

Lanbidez almatzen-eroa da Iñaki, baina musika entzuten duenean transformatu eta Patxo bihurtzen da. Ea zerekin harritzen gaituen Goizuetatik datorren herritar honek!



Maitane Eizmendi Nogales

Zortzikoteko gazteena, orduak pasa ditzake hizketan. Bi arrain ditu, porru eta salda: batzuetan haiekin kontu-kontari ibiltzen da.



Jagoba Mendizabal Imaz

Etorkizuneko Uistineko alkatea. Euskal Herriko Freddie Mercury da, udara Kinada taldearekin kontzertuz kontzertu pasako du.



Coro Dominguez Rodriguez

Lanbidez psikologoa, baina itxialdian balkoi aztoratzailea. Esaten du lotsak erabat galtzera etorri dela, baina ez da konturatu jada dezente galdu dituela.



Enara Iregi Uitzu

Hiru maratoitan gorputza dantzan jarrarazi digu. Herrian diote marimatraka eta lotsa gutxikoa dela!



Joxe Mari Agirretxe Kerexeta

Zortzikoteko kiderik beteranoena, fase interesantean dagoena. Saltsa guztietan laguntzeko prest.



Rebeka Garzes Aldazabal

Bere ametsa Maratoian elegante azaltzea da, eta bere helburua, Lasarte-Oriako DIBA berria izatea.



Viky Castro Bravo

Venezuelatik iritsi da herria festan jartzera. Euskaltegiko inmertsiolari profesionala, superneska!



Kadete taldea eta Mirian Prieto (erdian), Aranzabe (bigarren mailan) zein Sarmiento (hirugarren mailan) gimnastak podiumetan. LOKE GIMNASTIKA

Gimnastak, banakako zein taldeko podiumetan

LOKEko Mirian Prieto eta Maitane Sarmiento gimnastek lehen eta bigarren postua lortu dute Gipuzkoako txapelketan, hurrenez hurren. Ez dira izan podiumera igo diren herritar bakarrak izan; Udaberri Torneoan kadete mailako LOKE garaile izan da

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastek banaka zein taldeka hiru hitzordu garrantzitsu izan zituzten, hilaren 14an eta 15ean, Irunen. Amateur mailako zein eskolarteko mailako Gipuzkoako txapelketetan zein

Udaberri Torneoako finalean lehiatu ziren. Emaiza paregabeak lortu zituzten, nabarmenenak Mirian Prietok eskuratutako jubenil mailako Gipuzkoako txapelketa eta kadete taldeak Udaberri Torneoan lortutako lehen postua dira.

Hilaren 14an, Gipuzkoako txapelketetan parte hartu zuten. Goizean Amateur mailakoa jokatu zen eta arratsaldean, berriz, Eskolarteko mailako lehia.

Amateur mailan bost gimnasta eta kadete B taldea atera ziren tapizera.

Banaka lehiatu ziren gimnastek bi lan aurkeztu zituzten eta tresna batzuetan lehen postuetan sailkatu ziren.

Jubenil A mailako Mirian Prietok pilota (lehen postua) eta mazo lanekin (bigarren postua) parte hartu zuen eta bere lanak sailkapen orokorreko lehen postura eramanean zuten gimnasta gaztea.

Zinta eta uztaiarekin lan egin zuten Senior A mailako Garazi Gomezek eta Senior B mailako Paula Martinezek. Uztai lanean Gomezek bigarren postua eskuratu zuen finalean.

Kadete B mailako Aitana Molanok eta Erika Tejerok uztaia eta mazo lana izan zuten eta Molanok bosgarren postuan amaitu zuen uztaiko lehia. Kadete taldeak, azkenik, uztaiak eta pilotak izan zituen lan tresna.

Lehen postuak

Ordu batzuk geroago, Eskolarteko mailako txapelketa jokatu zen. Horretan Infantil B mailako LOKE gimnastek parte hartu eta banakako lehiaketan podiumera igo ziren.

Maitane Sarmientok eta Maialen Aranzabe-Ane Lopez taldea izan ziren LOKERen ordezkariak lehiaketa horretan, eta uztaia eta pilotak izan ziren landutako tresnak.

Sarmientok bigarren postuan amaitu zuen pilotako saioa eta hirugarren uztaikoa. Sailkapen orokorrean bigarren postuan sailkatu zen.

Aranzabe-Lopez bikoteko kideak igo ziren uztaiko podiumera; Aranzabek bigarren postua eskuratu zuen. Sailkapen orokorrean, berriz, laugarren izan ziren.

Azkenik, Udaberri Torneoako finala jokatu zen igandean, hilak 15. Lehiaketa honetan kadete mailan izan zen emaitzarik nabarmenena. LOKE taldeak garaipena erdietsi zuen bai finalean, baita sailkapen orokorrean ere. Infantiletan, aldiz, LOKE CP2 taldea laugarren izan zen finalean; CM taldea eta CP1 taldea, berriz, sailkapen orokorreko laugarren eta bosgarren izan ziren, hurrenez hurren.

Hurrengo lehiaketak

Emaiza hauei esker, LOKEko Prieto, Martinez eta Gomez gimnastek maiatzaren 29an Durangon antolatuko den Amateur mailako Euskadiko txapelketarako sailkatzea lortu dute.

Kadete mailan ere, LOKEko taldea, Aitana Molano eta Erika Tejero izango dira lehian. Euren hitzordua ekainaren 4an izango da.

Eta eskolarteko mailan, Gipuzkoako txapelketako B mailako lehen lau banakakoak Euskadiko Jokoetako txartela eskuratu dutenez, LOKEk ordezkari bat izango du lehiaketan, Maitane Sarmiento. Gimnasta A mailan lehiatuko da maiatzaren 28an, Gasteizen izango den proban.

Buruntzaldea IKTko igerilariak bikain, hitzordu ezberdinetan

Nahia Zudaire garaile izan da Illes Balears Openean. Gainerako probetan, marka ugari ondu dituzte igeriketa taldeko kideek

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariak hitzorduz betetako asteburua izan zuten hilaren 14an eta 15ean. Dominak, marka pertsonalak eta txapelketarako gutxienekoak batzen jarraitzen dute taldeko kideek.

Igeriketa egokitutako AXA Ligako hirugarren jardunaldia lehiatu zen hilaren 14an, Illes Balears III. Opena. Euskadiko Selekzioak parte hartu zuen bertan eta ordezkarien artean Nahia Zudaire zubietarra izan zen.

Igerilari gazteak sari nagusia eskuratu zuen, parte hartutako hiru probatan lortutako puntuak esker. Estilo libreko 100 m. (1.13,66) eta 400 m. (5.08,60) zein 50 m. tximeleta probak (37,34) lehiatu zituen eta hiruetan lehen postuan izan zen.

Markak ontzen

Garazi Etxeberria taldekidea, berriz, Gipuzkoako selekzioarekin 35. Gijongo Hiria Sarian lehiatu zen. Maila handiko kirolarien artean egin zuten igeri herriko gazteak eta



Zudaire, podiumean. KIROL EGOKITUAREN EUSKAL FEDERAZIOA

ederki moldatu zen, bere bi marka pertsonal onduz.

Bost bider egin zuten igeri Etxeberriak; 50 m. (28,59) eta 100 m. libreetan (1.02,54) zein 200 m. lau estiloetan (2.40,45) larunbatean,

eta 50 m. tximeletan (31,99) eta 200 m. librean (2.20,73) igandean. Lau estiloko eta tximeleta estiloko probetan marka pertsonal berriak egin zituen gazteak.

Bestalde, Gipuzkoako trofeoan B zirkuituko lehen geldialdia den Zarautz Sarian parte hartu zuten hilaren 14an hainbat taldekideek: Izaro Audikana, Saioa Elola, Alba Escribano, Irati Etxeberria, Iker Gandia, Iker Gorostegui, Mayi Gorostegui, June Lopez eta Jurgi Sukunza.

Guztira hemezortzi marka pertsonal berritu zituzten eta horien artean, Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketarako gutxieneko markak egon ziren. Udako Gipuzkoako txapelketarako txartela lortu zuten Irati Etxeberriak 100 m. lau estilo proban eta Iker Gandiak 50 m. libre proban; Iker Gorostegui,

berriz, Euskal Herriko Infantilen udako txapelketako 200 m. lau estilo probarako sailkatu da.

Igerilari osoa

Taldeko Oier Jauregi, Liher Albizu eta Itxaso Iparragirre benjaminek, aldiz, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa den Igerilari Osoa proban lehiatuko ziren hilaren 15ean, Legazpiko Bikuña kiroldegian.

Goizean 50 m. tximeleta eta 100 m. bizkar probei aurre egin zieten; arratsaldean, berriz, bular eta estilo libreko 100 m. probei.

Igerilari gazteek euren markak hobetu eta lehia bikaina eskaini zuten. Hala nola, Oier Jauregik laugarren postua eskuratu zuen 100 m. bizkar proban. Nahiz eta podiumik ez lortu, prestatzaileak pozik daude hurrek egindako lanarekin.

Herriartekoan, kale; lau eta erdikoan, bale

Lasarte-Oriako pilotariak Herriarteko Eskuzko Txapelketako kanporaketa jokatu dute Azpeitiaren aurka; bestetik, lau eta erdiko txapelketako azken jardunaldia ere izan dute. Azken txapelketa horretan, Gipuzkoako zein Ekialdeko txapelketak lehiatzeko sailkatu dira

Txintxarri

Herriarteko Eskuzko Txapelketa Michelingo kirol guneko pilotalekura itzuli zen hilaren 14an. Lasarte-Oria eta Azpeitiaren arteko lehia izan zen. Hiru neurketa izan ziren eta Azpeitia izan zen nagusi guztietan; 0-3 irabazi zuen.

Kadete bikoteek eman zioten hasiera jaialdiari. Herriko ordezkariak espero bezala, aurkariaren bikoteak hasieratik bere maila erakutsi zuen eta erraz gailendu zen. Lasarte-Oriako bikotea osatzen zuten Beñat Olazabal eta Xuban Urdalleta tantoak borrokatzen saiatu ziren arren, sei puntu besterik ez zituzten lortu.

Arratsaldeko bigarren neurketa jubenil mailakoa izan zen. Azpeitiako bikoteak 8-22 garaitu zuen Haritza Diaz de Gereñuk eta Peru Urdanpilletak osatutako bikotea. Solanoren hitzetan, presioak gainditu zituen herriko pilotariak. "Lehen urteko



Lasarte-Oria eta Azpeitiaren arteko jubenil mailako neurketako irudia. TXINTXARRI

jubenilak dira. Bikotekako txapelketan lan ona egin zuten eta tanto gehiago egitea espero genuen", onartu du.

Senior mailan, borroka gehiago izan zen. Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak ederki jokatu zuten. Partida luzea eta gogorra izan zen eta tanto ikusgarriak ere izan ziren. "Artetxek tanto ederrak egin zituen", nabarmendu du Solanok.

Markagailuan parekatuak joan ziren bi bikoteak, 10-9kora arte. Tamalez, herriko bikoteak ezin izan zion aurkariak ezarritako erritmoari eutsi eta Azpeitiak eraman zuen puntua, 10-22.

Emaitzak aldeko izan ez arren, Lasarte-Oriako ordezkariak pozik daude egindako lanarekin. "Nagusi izan ziren, baina gu ere ongi lehiatu ginen", adierazi du Lasarte-Oriako arduradunak.

Ortega, Gipuzkoako txapeldun

Euskal Pilota Egokituko XII. Gipuzkoako Txapelketako binakako finalak jokatu ziren hilaren 14an Zumaiako Aitzuri frontoian.

Adimen urritasuna duten teniseko paletako bi final jokatu ziren. Multzo gorriko lehia Lander Ortega herritarrek Xabier Villar bikote Lorea Iribar eta Ibai Gomez izan zituzten aurrez aurre.

Ortegak eta Villarrek 25-7 garaitu zituzten aurkariak eta Gipuzkoako txapeldunaren txapela jaso zuten gainerako bi finalak bukatu ostean. Ortega eta Villarrek batera, Adimen urritasuna duten teniseko paletako multzo gorriko txapeldunen saria jaso zuten Joseba Altuna eta Eneko Sagarmendik eta gorpil aulkiko gomazko paleta txapeldunak Beñat Lizaso eta Manu Quesada izan ziren.



Ortega (beltzez) eta Villar saria jasotzen. PELLO CARBALLO

Herriartekoan zorterik izan ez bazen, lau eta erdiko azken jardunaldian fin ibili ziren Intzako kideak; garaipenak erdietsi eta hurrengo faserako sailkatu dira.

Lau eta erdian aurrera

Kadete 2. Mailako Beñat Olazabalek 22-11 irabazi zion Oiarpeko Heviari. Olazabalek ez du lehen fase honetan partidarik galdu eta bere multzoko lehen sailkatu da. Ondorioz, Gipuzkoako txapelketako final zortzirenak lehiatuko ditu maiatzaren 29an.

Jubenil mailan ere, Peru Urdanpilletak aurrera egingo du Gipuzkoako txapelketan. Bere

multzoko bigarren sailkatu da Gaztelekuko Beroz 22-7 garaitu ostean. Serio jokatu zuen herriko pilotariak eta ez zion aurkariari aukerarik eman.

Haritza Diaz de Gereñuk eroso jokatu eta 22-11 irabazi zion Hernaniko Arabaolazari. Bere multzoko laugarren izan da eta Ekialdeko finalerako bidea egingo du pilotari gazteak.

Azkenik, Jon Pello Artetxe seniorrak ez zuen neurketarik jokatu. "Arazo fisikoeekin dabil, ez zuen ezer jokoan eta neurketa ez jokatzea erabaki zuen. Herriartekoari eman nahi izan zion lehentasuna", jakitera eman du Solanok.

Zilarrezko domina, alebin mailako taldekako txapelketan

Lasarte-Oriako atletak txanponaren bi aldeak bizi izan dituzte. Eskolarteko mailan izan da emaitzarik onena

Txintxarri

Atletismo aire zabaleko denboraldia aurrera doa. Eskolarteko mailako kirolariak denboraldiko azken probak lehiatzen ari dira; beste mailakoak, berriz, hasiberriak dira.

Eskolarteko mailako lehiaketei dagokionez, maiatzaren 14an, alebin mailako taldekako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Tolosako Berazubi kirol gunean.

Ostadar SKTko kideek bost talde aurkeztu zituen lehiara:

Landaberri Ikastola A eta B; Sasoeta A eta B eta Ostadar SKT.

Gaztetxoek zazpi proba lehiatu zituzten -60 m. eta 1.000 m. lasterketa, 60 m. hesi lasterketa, luzera-jauzia, altuera jauzia, pisu jaurtiketa eta 4x60 m. errebo lasterketa- eta pixkanaka puntuak batuz joan ziren.

Era horretara, Landaberri B taldea 64,5 puntu lortu zituen eta Gipuzkoako txapelketa euskarazetik gertu izan zen. Garaile izan zen Ordiziako Jakintza ikastolatik puntu erdira geratu zen.



Alebin txapelketan parte hartu zuten taldeetako kideak. OSTADAR ATLETISMOA

Bestetik Ohorezko Mailako Espainiako Kluben Ligako bigarren jardunaldian izan ziren Lasarte-Oriako bi atleta. Super Amara Bidasoa Atletiko Taldearekin (BAT) parte hartu zuen Ostadarreko kide Enara Gonzalezek, Zaragozan, eta Real Sociedad taldearekin izan zen Yeray Veroniz herritarra

Villafranca de los Barrosen Extremaduran.

Reala bigarren izan zen eta Ohorezko mailako finalean izango da. Veronizek bere aletxo jarri zuen 100 m. eta 4x100 m. lasterketetan lehiatuz. Azken horretan, lehen postua eskuratu zuen taldeak.

Lehiaketaren beste aurpegia bizi izan zuen BATEk. Eguraldi kaxkarrari eta baja garrantzitsuei aurre egin behar izan zion taldeak. Hala nola, Ostadarreko Naroa Furundarenak ezin izan zuten Zaragozara joan iskioetan arazoak dituelako.

Horregatik, nahiz eta Gonzalezek luzera-jauzian -3. postua eskuratu zuen- eta jauzi hirukoitzean puntu baliagarriak eskuratu, BATEk laugarren postuan amaitu zuen jardunaldia eta hurrengo jardunaldian maila mantentzeko lehia egongo da.

Bi hitzordu horiez gain, lehiaketa gehiago izango dituzte herriko atletak hurrengo asteetan. Lehena, hilaren 22an, Eskolarteko proba konbinatuetako Gipuzkoako txapelketa izango da eta Ostadar SKTko antolatuko du.

Bigarren kanporaketan erabakiko da finalista

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones eta TEEP Tolosalak Ligako finalerdiak ari dira jokatzeko. Lehen neurketan Tolosako taldea izan da garaile, 4-6. Lasarte-Oriako taldeak kanporaketari itzulia eman eta finalean egoteko lan egingo du

Txintxarri

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak oztopo batekin egin du topo 1. mailako finalerako bidean, TEEP Tolosala. Maialen Chourraut kiroldegian jokatu zen kanporaketako lehen partidaren 4-6 gailendu zen Tolosako taldea eta emaitzari itzulia eman beharko dio Lasarte-Oriako taldeak bigarren neurketan.

Partida ongi hasi zuen etxeko taldeak eta erasoan ederki ari zen lanean. Minutu gutxietara, ordea, defentsa huts batek Tolosako taldearen gola ekarri zuen.

Berdinketaren bila, Josu Lopezek eta Mikel Escribanok zuzentzen duten taldeak aukerak sortu zituen. Tamalez, Tolosalaren atezainak eraso guztiak zapuztu zituen eta kontraeraso batean aurkariak bigarren gola egin zuen.

Markagailua murrizte aldera erasotzen jarraitu zuen Lasarte-Oriako taldeak. Tolosarrek ere aukerak sortu zituzten eta



Neurketako irudia. TXINTXARRI

Eguzkiren beste defentsa huts batez ongi baliatu ziren hirugarren gola egiteko.

Atsedendira iritsi baino lehen eman zuen fruitu etxeko taldearen lanak. Landutako jokaldi baten ostean, aurkariaren sarean amaitu zuen baloiak (1-3).

Bigarren zatia, indartsu hasi zuten Lopez eta Escribanoren jokalariek. Ondorioz, hiruna

berdinu zuten partida eta aurretik jartzeko aukera ere izan zuen etxeko taldeak; Tolosalako atezainak ez zien utzi, ordea.

Eta alboko sake batean, jaurtiketa egin eta eskuairatik sartu zuen aurkariak laugarren gola.

Eguzkiko jokalariek ez zuten ondo hartu gola eta euren jokoan eragina izan zuen. Hori baliatuz, beste bi gol egin zuen Tolosalak eta 3-6 jarri zen.

Eguzkik ez zuen amore eman, eta azken minutuan, penalti bati esker, laugarren gola lortu zuen.

Ondorioz, Tolosalak jokatu duen norgehiagoka zaila izango dela onartu du Josu Lopez prestatzaileak. Guztia eman eta finalean egoteko lan egingo dutela ere nabarmendu du: "Bi goleko errenta du aurkariak eta itzulia eman behar diogu. Baina taldeak edozer lortzeko gai dela erakutsi du eta izan genituen hutsak konponduz gero, finalean egon gaitzkeela uste dut. Finaleko txartela lortzeko gogoz joango gara".

Hondarribia, bigarren trainerillen Gipuzkoako txapelketan

Intza Fernandez herritarra kide duen ontziak Trainerilla ligako hirugarren postua ere eskuratu du

Txintxarri

Trainerillen denboraldia amaitzear da. Maiatzaren 14an eta 15ean, ligako azken jardunaldia eta Gipuzkoako txapelketa lehiatu ziren Pasaia Donibanen.

Emakumezko senior mailan lau ontzi atera ziren maiatzaren 14an ligari amaiera ematen zion jardunaldia lehiatzen: Donostia Arraun Lagunak, Hondarribia A eta B eta Zumaia A. Eta Intza Fernandez herritarrak Hondarribia A taldean parte hartu zuen.

Ez zen proba soila, hurrengo egunean jokatu zuen Gipuzkoako



Fernandez (goiko ilaran erdian) eta talde kideak dominekin. HONDARRIBIA AE

txapelketako sailkapen proba ere izan baitzen.

Erlojupeko modalitatean lehiatu zen eta guztien artean azkarrena Donostiako ontzia (16.11,76) izan

zen. Aldea atera zuten gainerako aurkariei. Hala nola, bigarren izan zen Hondarribia Ak 16.25,34 egin zuen.

Ligako sailkapen orokorrean, berriz, hirugarren postua eskuratu du Hondarribiako A taldeak.

Zilarrezko domina

Gipuzkoako txapelketan ere donostiarrak izan ziren nagusi. Hasieratik aurre hartu zuten eta hiru segundoko aldea ireki zuten Hondarribia A ontziarekiko.

Bigarren zibogaren ostean, Hondarribiak gerturatzea lortu zuen eta hirugarren zibogaren bigarren postua izan zuen.

Donostiarrak, ordea, indartsu daudela erakutsi eta helmugara iristean 15.43,73 egin zuen; Hondarribiak, berriz, 15.47,54. Zilarrezko domina jantzi zuen, beraz, Intza Fernandez herritarrak.



2019ko Santa Ana txapelketako ligaxkakako irudia. TXINTXARRI

39. Santa Ana pala txapelketa antolatuko du udalak

Bikoteen izen ematea hilaren 23tik 30era egin ahalko da Maialen Chourraut kiroldegian

Txintxarri

Bi urteko etenaren ostean, Lasarte-Oriako Udalak Santa Ana pala txapelketa antolatuko du.

Lehia maiatzaren 30ean hasi eta Santa Ana egunera arte, uztailearen 26ra arte aurrera eramango da Loidibarren pilotalekuan.

Antolatzaileek azaldu dutenez, 16 urte beteak izanik,

Buruntzaldean –Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil– bizi diren emakumeek zein gizonezkoek parte hartu ahal izango dute lehiaketa.

Izen ematea –bikotea osatzen dutenen eta ordeko jokalariren izena, bi abizen eta telefono zenbakia– Maialen Chourraut kiroldegian egin behar da hilaren 23tik 30era. Inskripzioa doan da.

Buruntzaldea Kirol webgunean egin ahal dira izena emateak

Udako jardueretan, igeriketa izan ezik, parte hartu nahi duten herritarrek internet bidez egin dezakete inskripzioa

Txintxarri

Hilaren 16tik Udako Kirol Zerbitzuak uztaileko antolatu dituen kirol jardueren eta ikastaroen izen emateko aukera berria dute herritarrek, Buruntzaldea Kirola Webgunean.

Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, zerbitzu hori mailaren arabera banaketarik ez duten ikastaroetarako bakarrik izango da erabilgarri. Ondorioz, ezingo da bide horretatik igeriketa ikastaroen inskripzioa egin. Webgunean Lasarte-Oriako atalean dauden *Pista erreserba* eta *Doako saioen* aukeraren batera txertatu da *Uda 2022 jarduerak* atala. Bertan erabiltzailea eta pasahitza sartu eta jardueren aukeratzea besterik ez dute interesdunek.

Erabiltzaileek ez duten herritarrek, *Bazkideen gunean* sartu eta erabiltzaile zein pasahitza sortzeko aukera izango dute orrialdean bertan.

Kirol Zerbitzuetatik ohartarazi dutenez, kirol jardueren eta ikastaroen izena emateko erabiltzen duten herritarrek, aldeztu aurretik ikastaroaren prezio osoa ordaindu beharko dute. Horretarako Euskal Administrazioaren Ordainketa-pasabidea erabiliko da eta bertan, VISA txartela edo Bizum bidez ordaintzeko aukera dago.

Igeriketa ikastaroa

Bestalde, 2021-2022 ikasturteko azken igeriketa ikastaroa antolatuko dute maiatzaren 30etik ekainaren 24a. Ikastaroa helduei zuzendua da. Saiok astelehenean ostiralera izango dira, 20:30etik 21:15era. Ikastaro honetan parte hartu edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek kiroldegira deitu (943-37 61 82 telefonora), edo kiroldegiko bulegora gerturatu behar dute bulegoko ordutegian hilaren 25a baino lehen.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

LASARTE-ORIA Plaza Dantza

Hilabeteroko laugarren igandean bezala, Okendo plazara irtengo dira Plaza Dantzako kideak. Ohi bezala, Euskal Dantzen erakustaldia egingo dute, baina bereziki muxikoak dantzatuko dituzte. Ttakun KEaK helduen euskarazko aisia eskaitzen barruan, talde iraunkorra da plaza dantzakoena. Asteartero entseatzeko dute Sasoeta ikastetxeko gimnasioan, 20:00etatik 21:30era. Datorren ikasturtean bertan parte hartzeko interesa duenak kultura@ttakun.eus helbidera idatz dezake. Okendo plaza, 12:00etan.



OSTIRALA 20

LASARTE-ORIA Erakusketa

Jose Mari Martin margolariak hainbat koadro jarri ditu ikusgai Jalgi kafe antzokiko paretetan. Haren margolanak ikustera joateko azken eguna ekainaren 5a izango da, igandea. Jalgi kafe antzokia, 09:30etik 21:30era.

ANDOAIN Dantza

Haatik Dantza Konpainiak *Ur bizitan* dantza emanaldia eskainiko du. Urumea ertzean bizi zen familia baserriar baten kontakizunak bultzatu du taldea sorkuntzaren bidaia horretan murgiltzera. Bastero kulturgunea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldearen eskutik, *Alcarrás* ikusteko aukera izango dute lasarteoriarrek. Sarrerek 6 euro balio dute eta sarean nahiz kultur etxeko leihatilan eros daitezke. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:30etan.

LARUNBATA 21

USURBIL Bisita

Musikenek, Donostiako Elizbarrutiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta eta Usurbilgo Organoaren Lagunak taldeko kide Joan Luis Atxegaren eskutik, Salbatore Elizako organoaren aurkezpen saioa. Egitarau osoa musikene.eus

atarian ikus daitezke. Salbatore eliza, 11:30etik 13:30era.

IGANDEA 22

USURBIL Jaia

Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldeak antolatuta, 39. Usurbilgo Sagardo Eguna ospatuko dute usurbildarrek. 11:30ean izango da irekiera eta baserriko zein sagardotegi ezberdinetako sagardoa dastatzeko aukera izango dute bertaraten direnek. Edaria laguntzeko, pintxo aukera zabala ere izango da. 14:30ean amaituko da sagardo dastaketa. 18:00etatik 21:00etara *Matraka* Elektrotxaranga ibiliko da Usurbilgo kaleetan zehar. Usurbil, egun osoa zehar.

OSTEGUNA 26

HERNANI Abesbatza

Pertsona Nagusien Abesbatzen V. Topaketa egingo dute Hernanin eta beste hainbat talderekin batera arituko dira Lasarte-Oriako Biyak Bat egoitzakoak. San Joan Bataiatzailea parroikia, 17:00etan.

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA *Irakule Txokoa* Lasarte-Oriako Muntteri AEKrekin elkarlanean, eta Korrika Kulturalaren barruan, irakurraldi bertsotua

antolatu dute. Uxue Alberdi idazle eta bertsolariaren *Dendaostekoak* liburua oinarri hartuta egingo dute saioa. Idazleak bere lanaren pasarte bat irakurri eta, hortik abiatuta, bertsoan arituko dira Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal. Aitor Nova musikaria izango dute lagun. 19:30ean izango da, kultur etxean. Sarrerek 6 euro balio dute. Manuel Lekuona, 19:30ean.

LARUNBATA 28

LASARTE-ORIA Kontzertua

Onki Xin taldeak kontzertua emango du Jalgi kafe antzokian. Sarrera, doan. Jalgi Kafe antzokia, 23:00etan.

IGANDEA 29

LASARTE-ORIA Dantza

Erketz Euskal Dantza Taldearen Dantzari Txiki Egunak alaituko du herria. 32. edizioa izango da aurtengoa. 11:30ean hasi eta 13:15ean amaituko dela jakinarazi dute antolatzaileek. Herriko auzoetan zehar ibiliko dira. Herrian zehar, 11:30ean.

AMASA-VILLABONA Mendi irteera

30. Haur Mendi ibilbidea egingo dute. Aurtengoa Aizkardi Mendizale Elkarteak antolatuko du. Harrera goizeko 9:00etan izango da eta irteera 9:30ean. Errebote plaza, 09:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

M. LEKUONA

'Alcarrás'
Ostirala 20
20:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Mentes
Maravillosas'
Igandea 22
19:30.
Astelehena 23
19:30.

'El secreto de
Vicky'
Igandea 22
17:00.

USURBIL

URBIL

'Animales
fantásticos: los
secretos de

Dumbledore'

Ostirala 20
21:30.
Larunbata 21
21:30.
Igandea 22
21:30.

Cinco lobitos'

Ostirala 20
16:35, 19:10,
21:45.
Larunbata 21
12:30, 16:35,
19:10, 21:45

Igandea 22
12:30, 16:35,
19:10, 21:45

'Doctor Strange
en el Multiverso
de la Locura'

Ostirala 20
16:00, 17:45,
19:05, 20:45,
22:10.
Larunbata 21

12:00, 16:00,

17:45, 19:05,
20:45, 22:10.
Igandea 22
12:00, 16:00,
17:45, 19:05,
20:45, 22:10.

'El Arma del Engaño

Ostirala 20
16:25, 18:40,
21:40.
Larunbata 21
16:25, 18:40,
21:40.

Igandea 22
16:25, 18:40,
21:40.

'El Hombre del
Norte'

Ostirala 20
18:20.
Larunbata 21
12:00.
Igandea 22
12:00, 18:20.

'Juego de Asesinos'

Ostirala 20
16:00, 19:25,
22:05.
Larunbata 21
16:00, 19:25,
22:05.

Igandea 22

16:00, 19:25,
22:05.
Ostirala 20
16:25, 18:40,
21:40.

'Los tipos malos'

Ostirala 20
18:45.
Larunbata 21
12:20, 15:45,
18:45.
Igandea 22
12:20, 15:45,
18:45.



LABURPENA

'Cinco lobitos'

Zuzendaria: Alauda Ruiz de Azúa. **Gidoia:** Alauda Ruiz de Azúa. **Argazkia:** Jon D. Dominguez. **ekoizleak:** 3Encanta Films, Sayaka Producciones Audiovisuales, Buena Pinta Media, RTVE. **Herrialdea:** Espainia (2022). **Iraupena:** 104 minutu. **Generoa:** Drama, familia, amatasuna. **Musika:** Aránzazu Calleja. **Aktoreak:** Laia Costa, Susi Sánchez, Ramón Barea, Mikel Bustamante, Amber Williams, Lorena López, José Ramón Soroz, Leire Ucha, Elena Sáenz, Asier Valdestilla García, Nerea Arriola, Juana Lor Saras, Justi Larrinaga, Isidoro Fernández.

Alaba izateari utzi dion ama

Ama izan berri da Amaia, eta konturatu da ez dakiela oso ondo nor den. Aste batzuetan bikotekidea lanera joan ez denez, gurasoen etxera itzultzea erabaki du, Euskal Herriko kostaldeko herri polit batera, haurra zaintzeko ardura partekatzeko. Amaiak ez daki,

ordea, ama izan denean alaba izateari utziko diola.

Amatasunari buruzko drama filma ikusteko aukera izango dute ikusleek. Malagako zinema jaialdian lau sari irabazi zituen ikus-entzunezkoak; horien artean film eta gidoi onenarena.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa




ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago. Iritsi da **TicketBAI**.

Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.



TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eu/ticketbai



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra

-  Administrazioa eta Kudeaketa
-  Energia eta Ura
-  Instalazioa eta Mantenua
-  Fabrikazio Mekanikoa
-  Elektrizitatea

**STEAM
ERASMUS +
DUAL
ETHAZI
Lan Poltsa**

Hartu hitzordua!!!

 943-36 46 00

www.lhusurbil.eus